

**BILBAO EKINTZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EBAZPENA, ZEINAREN BITARTEZ HASIERA EMATEN  
ZAION MERKATARITZAREN SEKTOREAN BILBON ZUZENEAN KONTSUMITZEA SUSTATZEKO "BILBOKO  
MERKATARITZA-BONUAK" EROSTeko EPEARI**

Bilbao Ekintza EPEleko Administrazio Kontseiluak, 2021eko martxoaren 29an egindako saioan, merkataritza-sektorearen barruan Bilbon zuzenean kontsumitzea sustatzeko bonuen programa arautzeko araudia onetsi zuen.

"BILBOKO BONUAK" bonu-sistema arautu nahi du programak, herritarrek Bilboko establezimenduetan erosi dezaten bultzatzeko asmoz, eta, horri esker, udalerriko merkataritza-sektoreei suspertzen lagunduko zaie.

Hori horrela, Bilbao Ekintzak, programaren bitartez, hirian zuzenean kontsumitzea sustatu nahi du pandemiagatik kaltetuen izan den sektoreetako batean enplegua eta ekonomia suspertzeko, Bilbo hiri bizia eta dinamikoa izan dadin.

Onuradunek programa hasten den unetik aurrera erosi ahal izango dituzte bonuak, hau da, 2021eko maiatzaren 5etik aurrera. Bonuak erosteko epea 2021eko ekainaren 30ean amaituko da, edo bonu guztiak agortzen direnean.

Hori horrela, kontuan hartu behar da aipatutako oinarrietan ezarri dela Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz hartzen dituen prebentzio-neurri espezifikoaren mende egongo dela bonuak eskuragarri jartzea, herritarrek erosi ditzaten, bai eta programaren garapen egokia baldintza dezaketen edo programaren bidez lortu nahi diren helburuak hobeto lortzen lagun dezaketen beste edozein zirkunstantziaren mende ere. Horrenbestez, honako ebazpen hau hartu behar dela uste da:

#### **EBAZPENA**

**1.- 2021eko maiatzaren 5ean hasiera ematea** merkataritzan Bilbon zuzenean kontsumitzea sustatzeko "BILBOKO MERKATARITZA-BONUAK" erosteko epeari, horren bitartez erdietsi nahi diren helburuak hobeto lortzeko.

Bilbon, 2021eko apirilaren 23an.

**F. Javier Garcinuño Zabala**

**Zuzendari nagusia**